

**IRAGARKIA, 252/2024 prozedura laburtuaren bidez izapidetutako administrazioarekiko auzi errekurtsioan interesatuak izan daitezkeenak epatzeko Administrazioarekiko Auzien Bilboko 1 zenbakiko Epaitegian ager daitezen.**

Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu da Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegian, 252/2024 prozedura laburtuaren izapideen bidez, irakasle eta ikertzaileen errektoreordearen ebazpenaren aurka. Ebazpen hori 2022ko irailaren 26ko Ebazpenaren bidez deitutako 75 zenbakiko lan-poltsan lortutako puntuazioaren aurka aurkeztutako errekurtsioari buruzkoa da.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 49.1 artikuluan dioena betetzeko, epatu egiten dira interesatu izan daitezkeen hirugarren pertsonak, eta aipatutako prozedura judizialean agertu eta pertsonatu daitezkeela jakinarazten zaie. Bederatzi egun izango dituzte horretarako, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita.

Aipatutako errekurtsioa hainbat pertsonari zuzendutako egintza denez, iragarki hau argitaratzen da, bat etorrita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutakoarekin 45. artikuluan.

UPV/EHUko idazkari nagusia,  
AITOR ZURIMENDI ISLA.